

EUSKALTZAINDIKO DONOSTIAKO ORDEZKARITZA ERABERRITZEAN

Donostia, 1999-IV-23

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Koruko Aizarna, Gipuzkoako Euskara eta Kultura diputatu anderea,
Jorge Letamendia, Gipuzkoako Hirigintza eta Obretako diputatu jauna,
Euskaltzainkideak,
Jaun-andereak aratsalde on!

Hemen gaude, Donostiako ordezkari honetan egin den berriztapenaren estrenamezko. Gipuzkoako diputazioari esker egin da, bere gain hartu du. Nola ez eskerrak eman lehenik zuri, Koruko Aizarna anderea, diputatu nagusiaren izenean etorri zarela eta gero zuri ere, Jorge Letamendia diputatu jauna, lanen arduraren hartu duzula. Egia erran, gure Donostiako ordezkari eder eta txukun gelditu da. Goiz honetan eta arratsaldean ere egin dugu euskaltzainen hileroko bilkura, hobe gela honetan eta gehienetan egun berean biltzen baitira Donostian Gramatika batzordea eta Literatura ikerketa batzordea, hemendik goiti ordezkari bilduko dira, bat gela honetan eta berria gainera bulegoan. Gipuzkoako diputazioari esker erretzen da gure lana.

Biltzar ideki honetan Serafin Basauri euskaltzain urgazle jaunak aipatu ditu Imanol Laspiur euskaltzain urgazle zenaren bizia eta lanak. Ene aurrean dagoen alarguntzari, semeari eta askaziei eskaini nahi dizkiet ene doluminik bizienak, erranez beti go-goan daukadala Imanol Laspiur adiskidea.

Ene mintzalditxo honen bukatzeko berriz ere zuei biei, Koruko Aizarna andere diputatu eta Jorge Letamendia diputatu, ene eskerrik beroenak Euskaltzaindiaren izenean.

EUSKALTZAINDIAREN DONOSTIAKO ORDEZKARITZAREN BERRIZTATZEAZ

*Koruko Aizarna,
Gipuzkoako euskara eta kulturako diputatua*

Foru Aldundiok Euskaltzaindiarekin dugun harreman estua ez ezik, oparoa ere badela deritzogu, Euskararen beraren normalkuntza eta hedapenak izan dezakeen oinarri-rik sendo eta ezinbestekoena Akademia baita.

Urtetan Euskaltzaindiak hizkuntzaren sakontze, ikertze eta arau-emate lanei erantzun badie ere, zalantzarik gabe, egungo eta etorkizuneko erronkei aurrez aurre begiratzen die. Horregatik, bai bere barne antolakuntzak eta ikusker horrek, etengabeko elkarlanean jartzen gaitu Herri Administraziook Euskaltzaindiarekin.

Egokiera horri dagokion erantzunetako bat, xumea bada ere, Euskaltzaindiak Gipuzkoan duen ordezkartaren eraberritzea izan da, batetik, bere premia begibistakoa zelako eta, bestetik, ziur gaudelako baliapide materialek Euskaltzaindiaren lan baldintzak duindu eta emankorrago bihur ditzakeela.